

UNIBERTSITATE TITULUEN ALDAKUNTZAK ESKATZEKO LAGUNTZA-GIDA (GRADUAK ETA MASTERRAK)

SARRERA

Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 48. artikulua eta Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren ekainaren 28ko 13/2012 Legearen 3. artikulua agentziaren esku uzten dute Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza soziala duten unibertsitateen titulazioak ebaluatzeko eskumena.

Era berean, unibertsitate-irakaskuntza ofizialen antolamendua ezartzen duen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren (861/2010 eta 99/2011 errege dekretuek aldatu dute) 28.1 artikulua, ezartzen du ikasketa-planen aldakuntzak unibertsitateek onartu behar dituztela beraien estatutuek edo antolamendu- eta funtzionamendu-arauek eta, hala badagokio, unibertsitateen autonomia akademikoa zaindu beharko duten erkidegoko araudiek finkatzen duten moduan. Era berean, artikulua horren 2. atalak zera adierazten du; aldaketek 1509/2008 Errege Dekretuak ezarritako Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroaren (RUCT) edukian eragina badute, Unibertsitateen Kontseiluari horien berri emango zaio, eta dagokion kalitate-agentziara bidaliko ditu txostena egin dezan. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.5.c artikulua aipatzen duen nahitaezko izaera erabakigarria izango du txosten horrek.

Agentziaren ustez aldakuntza horiek ez badute aldakuntzarik eragiten Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan inskribatutako tituluaren izaera eta helburuetan, agentziak proposatu diren aldakuntzak onartuko ditu eta unibertsitateari horien berri emango dio hiru hilabeteko epearen barruan. Bestalde, adierazten da epe hori igaro eta ez bada inolako txostenik egiten, unibertsitateak bere proposamena onartuzat jo dezakeela.

Dokumentu honen helburua zera da, unibertsitateek graduako eta masterreko unibertsitate-tituluetan sartzen dituzten aldakuntzak aurkezteko erabiliko dituzten prozesuak ezartzea, komunikatzeko eta/edo ebaluatzeko.

IKASKETA PLANETAN EGITEN DIREN ALDAKUNTZAK

Ondoren, eskatzen duten unibertsitate-titulu ofizialen aldakuntzaren arabera unibertsitateek jarraitu beharreko prozesuaren sailkapen bat egiten da.

1. TITULUAREN DESKRIBAPENA		
ALDAKUNTZA	PROZESUA	OHARRAK
1. Tituluaren izena	Egiaztapena	Izenaren aldaketek alde aurreko titulua azkentzea eta titulu berria egiaztatzea dakarte, ofizioz aplikatuko diren epai judizialak salbu.
2. Maila	Egiaztapena	Maila-aldakuntzak (gradua, masterra edo doktoregoa) alde aurreko titulua azkentzea eta titulu berria egiaztatzea dakar.
3. Aipamenak graduetan / Espezialitateak masterretan	Egiaztapena / Aldakuntza	Graduen aipamenetan edo espezialitateen kasurako aldakuntzak biltzen eta/edo egiten dituzten tituluek, kreditu-banaketan ez badute aldakuntzarik eragiten, aldakuntza bat aurkeztu beharko dute, aipamenak eta/edo espezialitateak tituluaren hautazko irakasgaiekin eratzen direlako.
4. Unibertsitatea: Baterako titulua, unibertsitate parte-hartzaileen aldakuntza	Egiaztapena	Parte hartzen duten unibertsitateen aldaketek (parte hartzen duen unibertsitate berria edota unibertsitate bati baja ematea) alde aurreko titulua azkentzea eta titulu berria egiaztatzea dakarte.

5. Jakintza arloa	<p>a) Egiaztapena</p> <p>b) Aldakuntza</p>	<p>a) Jakintza-arloaren atxikipenean aldakuntzak egiten dituzten graduako tituluak alde zurrerako titulua azkentzea eta titulu berria egiaztatzea dakarte, oinarriko prestakuntzari dagozkion kredituak aldatu egin behar direlako 1393/2007 Errege Dekretuaren 12.5 artikulua araberan.</p> <p>b) Jakintza-arloaren atxikipenean aldakuntzak egiten dituzten masterreko tituluak aldakuntza egin behar dute.</p>
6. ISCED kodea/k	Jarraipena	<p>ISCED kodeetan egindako aldakuntzak jarraipena egiten denean jakinaraziko dira, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko dira memorian.</p>
7. Lanbide aratuak	Egiaztapena	<p>Titulu batean lanbide aratu bat egiteko edo ez egiteko aukeran eragina duen edozein aldakuntzak egiaztapen-izapide berria egitea eta Unibertsitate, Zentro eta Tituluaren Erregistroan alta ematea dakar.</p> <p>Bestalde, bermatu behar da, hala badagokio, alde zurrerako tituluak bere erregistroari eusten diola Unibertsitate, Zentro eta Tituluaren Erregistroan, azkentzen den arte, titulu horretan matrikulatu ziren ikasleei titulua amaitu ahal izango dutela (hasiera batean matrikulatu ziren baldintzetan) eta tituluak emango direla bermatzeko.</p>
8. Ikasketa planeko kreditu-banaketa	<p>a) Aldakuntza</p> <p>b) Egiaztapena</p>	<p>a) Ikasketa planeko kreditu-banaketa egiten diren aldaketek, oinarriko prestakuntzako, nahitaezko prestakuntzako, kanpo-praktiketako eta gradu-amaierako lanen eta master-amaierako lanen guztizko kredituen % 10 ez badute gaintzen, tituluaren aldakuntza bat aurkeztu beharko dute, batzordeak balioetsiko du aldakuntzak tituluaren helburuan eragina ote duen, eta ziurtapen berria izatea adierazi ahal izango du.</p> <p>b) Portzentaje hori gaintzen bada, tituluak beste egiaztapen bat egiteko eta alde zurrerako titulua azkentzeko eskatu beharko du.</p>

<p>9. Kreditu-banaketa aipamenetan edo espezialitateetan</p>	<p>Aldakuntza</p>	<p>Aipamen edo espezialitateetan kreditu-banaketan aldakuntzak egiten dituzten tituluek, betiere ez bada aldatzen hautazko kredituen guztizko kopurua, aldakuntza bat aurkeztu beharko dute.</p>
<p>10. Zentroa/k</p>	<p>Aldakuntza</p>	<p>Irakasten diren zentroa edo zentroak aldatzen dituzten tituluek, unibertsitate berekoak izanik, aldakuntza bat aurkeztu beharko dute.</p>
<p>11. Irakaskuntza mota (presentziala, erdipresentziala edo urrutikoa)</p>	<p>Aldakuntza</p>	<p>Tituluaren modalitatean aldakuntzak egiten dituzten tituluek aldakuntza bat aurkeztu beharko dute. Modalitate-aldakuntzak eraginpean hartzen dituen alderdi guztiak barne hartu beharko dira: plaza kopurua, irakaskuntzaren plangintza (prestakuntza-jarduerak, ebaluazio-sistemak, eta abar), iraute-araudia, irakasleak, baliabideak eta azpiegiturak, eta abar.</p>
<p>12. Eskainitako sartu berrien plaza kopurua</p>	<p>a) Jarraipena b) Aldakuntza</p>	<p>Sartu berrien plaza kopuruan egindako aldakuntzak jarraipena egiten denean jakinaraziko dira, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko dira memorian, betiere ez badute eraginik irakaskuntzaren plangintzan ezta irakasleengan eta erabilgarri dauden baliabideetan ere. Kasu horretan, aldakuntza bat aurkeztu beharko dute.</p>

<p>13. Ikasle bakoitzeko eta irakas-denbora bakoitzeko matrikula-kredituak</p> <p>(Denbora osoko edo partzialeko dedikazioa)</p>	<p>Jarraipena</p>	<p>Ikasle bakoitzeko eta irakas-denbora bakoitzeko matrikula-kredituen gehieneko eta gutxieneko kopuruari buruzko aldakuntzak, denbora osoko edo partzialeko dedikazioaren arabera, jarraipena egiten denean jakinaraziko dira, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko dira memorian.</p>
<p>14. Iraute-arauak</p>	<p>Jarraipena</p>	<p>Iraute-arauen aldakuntza jarraipena egiten denean jakinaraziko da, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko da memorian.</p>
<p>15. Titulua irakasteko hizkuntzak</p>	<p>a) Aldakuntza b) Jarraipena</p>	<p>a) Titulua irakasteko hizkuntza aldatzen bada eta bakarrik kanpoko hizkuntza batean irakasten bada, aldakuntza bat aurkeztu beharko da.</p> <p>b) Irakasgaietan erabilitako hizkuntzetan egindako aldakuntzak (gehitu edo kendu) jarraipena egiten denean jakinaraziko dira, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko da memorian.</p>

2. JUSTIFIKAZIOA		
ALDAKUNTZA	PROZESUA	OHARRAK
2.1 Justifikazioa	Jarraipena	Tituluaren justifikazioan edo erreferenteetan egiten diren balizko aldakuntzak jarraipena egiten denean jakinaraziko dira, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko da memorian.

3. GAITASUNAK		
ALDAKUNTZA	PROZESUA	OHARRAK
3.1 Oinarrizko gaitasunak, gaitasun orokorrak eta espezifikoak	a) Egiaztapena b) Jarraipena	<p>a) Oinarrizko gaitasunetan, gaitasun orokorretan eta espezifikoetan eragina duten aldaketek (ezabatzea, barnean hartzea edo aldatzea) aldez aurreko titulua azkentzea eta titulu berria egiaztatzea dakar.</p> <p>b) Esanahia aldatu gabe gaitasunen hasierako idazkuntza hobetzen duten edota gainjartzeak eta errepikapenak saihesteko xedez egitura hobetzen duten aldakuntzak ez dira ebaluatu beharko. Aldakuntza horiek jarraipena egiten denean jakinaraziko dira, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko dira memorian.</p>

4. IKASLEEN SARBIDEA ETA ONARPENA		
ALDAKUNTZA	PROZESUA	OHARRAK
4.1. Matrikula egin aurreko informazio-sistema	Jarraipena	Matrikula egin aurreko informazio-sisteman egindako aldakuntzak jarraipena egiten denean jakinaraziko dira, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko dira memorian.
4.2. Sartzeko baldintzak	Jarraipena	Titulazioek sartzeko ezartzen dituzten baldintzetan egindako aldakuntzak jarraipena egiten denean jakinaraziko dira, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko dira memorian. Graduko unibertsitate-ikasketetan onartua izateko prozeduren oinarritzko araudia ezartzen duen 412/2014 Errege Dekretua aplikatuz eratorritako aldakuntzak jakinaraztea ez da izango beharrezkoa.
4.3. Onartzeko irizpideak	Jarraipena	Onartzeko irizpideetan egindako aldakuntzak jarraipena egiten denean jakinaraziko dira, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko dira memorian.
4.4. Ikasleari laguntza eta orientazioa	Jarraipena	Ikasleari laguntza eta orientazioa eskaintzeko sisteman egindako aldakuntzak jarraipena egiten denean jakinaraziko dira, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko dira memorian.
4.5. Kredituak onartzeari eta transferitzeari buruzko sistema	a) Aldakuntza b) Jarraipena	a) Lanbide-esperientziagatiko kredituak eta titulu propioetatik eta/edo unibertsitatez kanpoko goi-mailako beste ikasketa batzuetatik datozen kredituak onartzean egindako gehitze edo aldaketak aldakuntza baten bidez aurkeztu beharko dute, 1393/2007 Errege Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoari jarraiki. b) Kredituak onartzeari eta transferitzeari buruzko barne araudian eragina duten aldakuntzak jarraipena egiten

		denean jakinaraziko dira, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko dira memorian.
4.5. Tituludunentzako egokitzapen-ikastaroak (graduak kasuan)	Aldakuntza	Aurreko unibertsitate-antolamenduko tituludunentzako egokitzapen-ikastaroak inkorporatzen edo aldatzen dituzten tituluak, aldakuntza bat aurkeztu beharko dute.
4.6. Prestakuntza-osagarriak (masterren kasuan)	Aldakuntza	Dagokion masterrari prestakuntza-osagarriak inkorporatzen dizkieten tituluak aldakuntza bat aurkeztu beharko dute.

5. IRAKASKUNTZEN PLANGINTZA		
ALDAKUNTZA	PROZESUA	OHARRAK
5.1. Ikasketa planaren egitura (Oinarrizko prestakuntza)	Aldakuntza	Oinarrizko prestakuntza derrigorrezkoa, 861/2010 Errege Dekretuak aldatu zuen 1393/2007 Errege Dekretuaren 12. eta 13. artikuluetan eta II. eranskinean dago araututa. Kreditu horien banaketan dauden aldakuntzak irakasgai eta/edo jakintzagaietan, aldatu egin behar dira, betiere jakintza-arloari, gaitasunei eta helburuei eusten bazaie. Aldakuntza garrantzitsuagoek titulu berri baten egiaztapena ekarriko dute.
5.2. Ikasketa planaren egitura (Derrigorrezko prestakuntza)	Aldakuntza	Derrigorrezko kredituen banaketan egin beharreko aldakuntzak, baldin eta ez bada aldatzen gainditu beharreko kredituen guztizko kopurua, lortu beharreko gaitasunak eta helburuak, aldakuntza baten bitartez eskatu behar dira.
5.3. Ikasketa planaren egitura (Hautazko prestakuntza)	Aldakuntza	Hautazko kredituen banaketan egindako aldakuntzak jarraipena egiten denean jakinaraziko dira, betiere ez badute derrigorrezko eta hautazko irakasgaien arteko aldakuntzarik ekartzen, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko da memorian.
5.4. Gradu-amaierako (TFG) edo master-amaierako lana (TFM)	Aldakuntza	Gradu-amaierako lanaren edo master-amaierako lanaren kreditu kopuruan egindako aldaketek, derrigorrezko prestakuntzari dagozkion kredituen guztizko kopurua edo tituluaren guztizko kreditu kopurua aldatzen ez badute, baita edukian, prestakuntza-jardueretan, ebaluazio-sistemetan eta abar egindako aldaketek ere, aldakuntza eskatu beharko dute.

5.5. Izena	Aldakuntza	Irakasgaien eta jakintzagaien izenean egindako aldaketek aldakuntza eskatu behar dute.
5.6. Denbora-unitatea	Jarraipena	Irakasgaia edo jakintzagaia emateko denbora-unitatean (hiruhilekoa, lauhilekoa, seiuhilekoa, urtea) egindako aldakuntzak, betiere ez badute aldakuntzarik eragiten kreditu-kargan, edukian, prestakuntza-jardueretan eta abar, jarraipena egiten denean jakinarazten dira, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko dira memorian.
5.7. Denbora esparrua	Jarraipena	Irakasgaia edo jakintzagaia emateko denbora-esparruan egindako aldakuntzak, betiere ez badute aldakuntzarik eragiten kreditu-kargan, edukian, prestakuntza-jardueretan eta abar, jarraipena egiten denean jakinarazten dira, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko dira memorian.

<p>5.8. Erabilitako hizkuntzak</p>	<p>Jarraipena</p>	<p>Irakasgai edo jakintzagai jakin batzuetan irakasteko erabilitako hizkuntzan edo hizkuntzetan egindako aldakuntzak jarraipena egiten denean jakinarazten dira, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko da memorian.</p>
<p>5.9. Ikaskuntza-emaizak</p>	<p>Jarraipena</p>	<p>Irakasgai eta jakintzagaietan espero diren ikaskuntza-emaizetan egindako aldaketek egindako aldakuntzak jarraipena egiten denean jakinarazten dira, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko dira memorian.</p>
<p>5.10. Edukia</p>	<p>Jarraipena</p>	<p>Derrigorrezko irakasgai edo jakintzagai jakin batzuen edukian/gai-zerrendan (oinarrizko prestakuntza, derrigorrezkoak, hautazkoak kanpo-praktikak eta gradu-amaierako lana eta master-amaierako lana) egindako aldaketek jarraipena egiten denean jakinarazten dira, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko dira memorian.</p>

<p>5.11. Gaitasunak</p>	<p>Jarraipena</p>	<p>Derrigorrezko irakasgaien gaitasunen banaketan egindako aldakuntzak, betiere ez badituzte eraldatzen tituluaren gaitasunak, ezta irakasgai horien ikaskuntzaren edukia edo emaitzak ere, eta hautazko irakasgaietan egindako aldakuntzak, jarraipena egiten denean jakinarazi daitezke, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko da memorian.</p>
<p>5.12. Prestakuntza-jarduerak</p>	<p>Jarraipena</p>	<p>Derrigorrezko nahiz hautazko irakasgaien prestakuntza-jardueretan egindako aldakuntzak jarraipena egiten denean jakinarazten dira, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko dira memorian.</p>
<p>5.13. Irakaskuntza-metodologia</p>	<p>Jarraipena</p>	<p>Derrigorrezko nahiz hautazko irakasgaien irakaskuntza-metodologietan egindako aldakuntzak jarraipena egiten denean jakinarazten dira, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko dira memorian.</p>

5.14. Ebaluazio-sistemak	Jarraipena	Derrigorrezko nahiz hautazko irakasgaien ebaluazio-sistemetan egindako aldakuntzak jarraipena egiten denean jakinarazten dira, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko dira memorian.
--------------------------	-------------------	--

6. LANGILE AKADEMIKOAK		
ALDAKUNTZA	PROZESUA	OHARRAK
6.1. Langile akademikoak eta beste giza baliabide batzuk	Jarraipena	Langile akademikoak eta beste giza baliabide batzuk eraginpean hartzen dituzten aldakuntzak jarraipena egiten denean jakinaraziko dira, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko dira memorian.

7. BALIABIDE MATERIALAK ETA ZERBITZUAK		
ALDAKUNTZA	PROZESUA	OHARRAK
7.1. Baliabide materialak eta zerbitzuak	Jarraipena	Baliabide materialak eta zerbitzuak eraginpean hartzen dituzten aldakuntzak jarraipena egiten denean jakinaraziko dira, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko dira memorian.

8. AURREIKUSITAKO EMAITZAK		
ALDAKUNTZA	PROZESUA	OHARRAK
8.1. Aurreikusitako emaitzak eta horien justifikazioa	Jarraipena	Aurreikusitako emaitzak eta horien justifikazioa eraginpean hartzen dituzten aldakuntzak jarraipena egiten denean jakinaraziko dira, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko dira memorian.

9. KALITATEA BERMATZEKO SISTEMA		
ALDAKUNTZA	PROZESUA	OHARRAK
9.1. Kalitatea Bermatzeko Sistema	Jarraipena	Kalitatea Bermatzeko Sistema eraginpean hartzen duten aldakuntzak jarraipena egiten denean jakinaraziko dira, eta tituluak beste aldakuntza bat eskatzen duenean eguneratuko dira memorian.

10. EZARTZEKO EGUTEGIA		
ALDAKUNTZA	PROZESUA	OHARRAK
10.1. Hasteko ikasturtea	Jarraipena	Titulazioa ez bada ezarri aurreikusita zegoen ikasturtean, lehen jarraipen-txostenean justifikatu beharko da.
10.2. Ezartzeko kronograma	Aldakuntza	Ezartzeko kronograma eraginpean hartzen duten aldakuntzak (ezarpena aurreratzea) aldakuntza-prozesuan jakinaraziko dira, unibertsitateak titulu-jaulkipena aurreikusita izan dezan.
10.3. Egokitzapen-prozedura	Aldakuntza	Ikasketa-plan berriaren aurreko irakaskuntzetatik datozen ikasleen egokitzapen-prozedura eta -tauletan egindako aldaketei buruzko aldakuntza eskatu beharko da.

10.4. Azkentzen diren irakaskuntzak	Aldakuntza	<p>Aurreko antolamenduaren arabera matrikulatutako ikasleen eskubideen babesean eragina duten aldaketei lotutako aldakuntza eskatu beharko da.</p> <p>Behin titulu ofiziala ezarrita dagoenean ezinezkoa da egungoa gauzatuko duen beste titulu ofizial bat azkentzea. Beste titulu bat ezartzearen ondorioz titulu ofizial baten azkentzea ez bada komunikatu, aldakuntza-prozesuaren bitartez jakinarazi behar da, eta, bidezkoa bada, dagokion egokitzapen-taula ere ebaluatu behar da.</p>
-------------------------------------	-------------------	--